

Pixoihal ekologikoak

Benetan garbi eta merkeak diren bakarrak

Zure haurrak 6.000 pardeletik gora erabiliko ditu, eta 200-500 urte beharko dituzte desegiten. Eta zuk 1.400 euro gastatuko dituzu pardeletan. Pixoihalak erabilia, berriz, 550 eurotik gora aurreztu eta zabor poltsari arindu ederra emango diozu.

ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkiak: Maddi Soroa

UMETAN PIXOIHALAK erabili dituenak gogoratu du kotoia zein leuna zen, egungo pardelekin edo hilekoarentzako konpresekin alderatuta. Hitzak dioenez pixoihal, oihalezkoak direnei bakarrik deituko diegu, eta erabili eta botatzeko horiei, berriz, pardela. Aiton-amonak, ordea, konturatuko dira egungo pixoihalak ez direla ordukoak: diseinu eta material berriei esker, hezetasuna primeran eusten dute eta oso errazak dira jartzeko.

Pixoihal denek sistema bera dute: likidoak xurgatzeko oihal bat, eta hezetasuna ez kanporatzeko oihal hau biltzen duen forroa. Hortik aurrera, hamaika modelo daude. Onena, modelo bakoitzetik probatzea da, gehien gustatzen zaizkizunak aukeratzeko. Eguneroko bizitzan pixoihalak bakarrik erabili nahi izanez gero 20-36 pixoihal artean beharko dituzu. Sistema oso erraza da: erabilitako pixoihalei kakak

komunetik behera bota pape-raz lagundurik, arropa marruskatzeko erabiltzen den zepillo txiki batekin zikin handienak kendu, eta kubo batean jarri uretan beratzen. Nahikoak pilatzean garbigailuan sartu, hori bai, xaboi leunarekin

Non eskuratu

www.crianzanatural.com webgunean pixoihalei buruzko informazioa eta erosteko modelo asko dituzu aukeran. Baita erabilitakoak biltzeko kuboa, garbitzeko xaboi bereziak, kalera eramateko poltsa eta beste hainbat osagarri ere.

eta ahalik gutxien erabilia, haurraren ipurdia babesteko. Lehortu eta berriro prest dituzu erabiltzeko. Pixoihalek adin guztietarako balio dute: neurrira egokitzeko kortxeteak dituzte eta beraz, behin erosita betiko dituzu. Gainera, ondo zainduz gero haur bat baino gehiagorentzat erabili ahal izango dituzu.

Bi desabantaila ditu pixoihalak: garbigailua sarri jarri beharko duzula –garbigailua jartzen duzunero gogora ezazu zaborra ateratzera askoz gutxiago jaisten zarela orain–, eta estetikoki haurrari ipurdi handiagoa egiten diola –haurrak, ipurdikoak hartzen hastean eskertuko dizu–. Hortik aurrera denak abantailak ditu.

Hondamendi ekologiko eta ekonomikoa

Haur bakoitzak, jaiotzen denetik pardelak uzten dituen arte, 6.000 pardeletik gora erabiliko ditu. Udalerriek sortzen duten zaborraren %10a dira eta 200 urtetik 500era behar dituzte desegiten.

Haur bakoitzeko 1.411 euro inguru gastatzen da pardeletan –kalkulu hau egiteko gehien saltzen den marka hartu da, merkaturiko preziorik baxuenean, eta haurrak 6.140 pardela beharko dituela aurrikusi–. Aldiz, pixoihalen pack osoak –hainbat modelo, erabilitakoak gordetzeko kuboa eta abar biltzen ditu– 660 euro balio ditu. Garbitzeko kostua gehituta, denera 854 euro kostatzen da pixoihalak erabiltzea. Pardelekin alderatuta, 557 euro aurrezten dira. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria> helbidean, pixoihalak jartzeko bideoa eta Interneteko loturak.

